



**2023KO UZTAILAREN 3KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko uztailaren 3an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko ekainaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren, premiak eraginda eta hurrengo Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura epe laburrean egingo ez zenez, alkatetzaz onartutakoen berri eman da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

**III.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 47 zenbakidun fakturen zerrenda, EHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI euro ETA HAMABOST zentimokoa (129.629,15 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

**IV.- LARREATEGIKO A.20.19.1 PARTZELA BESTERENTZEAREN ESLEIPENA.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2023ko martxoaren 27an egindako batzarraldian, Larreategiko A.20.19.1 partzela, prozedura ireki bidez besterentzeko, kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratatzailearen profilean 2023ko martxoaren 31n jarri zen.

Eskaintzak aurkezteko epean, proposamen bakarra aurkeztu zen, J&E Patrimoniales, S.L. enpresak aurkeztutakoa.

Aurkeztutako proposamena onartua izan zen.

Administrazio-dokumentazioa jasotzen zuen 1. artxibo elektronikoa 2023ko maiatzaren 16an, eguerdiko 12etan, ireki zen.

2023ko maiatzaren 23an, goizeko 9etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuen 2 zenbakidun artxibo elektronikoa ireki zen.

J&E Patrimoniales, S.L. enpresak aurkeztutako eskaintza honakoa izan da:

- A.20.19.1 lursaila erosteagatik: 493.662,46€
- Sei etxebizitzaren metro koadro erabilgarriaren salmenta-prezioa itundutako prezioan: 2.453,70€/m<sup>2</sup>/erabilgarri, Lazkaoko udalerrian jabetza osoko erregimen orokorreko habes sozialeko etxebizitzaren erreferentzia-prezioarekiko 1,40ko koefizientea delarik.

Ondorioz, eta lehen sailkatua eta bakarra J&E Patrimoniales, S.L. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatuzaileen erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

J&E Patrimoniales, S.L.k fidantza eratu du.

Hau honela, kontratazio mahaiak J&E Patrimoniales, S.L.ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia honela, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

**Lehena.-** Larreategiko A.20.19.1 partzela besterentzea J&E Patrimoniales, S.L. enpresari esleitzea baldintza pleguan jasotako eta esleipendunak bere proposamenean eskainitako baldintzen arabera.

**Bigarrena.-** Esleipenaren akordioa, proposamena aurkeztu duten enpresei jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

#### V.- LAZKAOKO UDALAREN ONDAREZKO ASEGUAREN ETA ASEGUU PERTSONALEN KONTRATAZIOAREN PLEGUEN ALDAKETAK ONARTZEA.-

2023ko ekainaren 5eko Tokiko Gobernu Batzordeak, Lazkaoko Udalaren ondarezko aseguruaren eta aseguru pertsonalen kontratazio espedientearen eta honek barne hartzen dituen baldintza teknikoaren eta baldintza administratiboaren pleguak onartzea erabaki zuen, baita Lizitazio deialdia egitea iragarkia udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea ere.



Honen ondoren, eta lizitazio deialdia egin aurretik, Udal teknikariek zuzendu beharreko akats batzuk aurkitu dituzte baldintza teknikoan eta baldintza administratiboen pleguetan. Akats hauek Gobernu Batzordean azaldu dira eta honek, aho batez, pleguetan zuzenketak egitea onartu du.

#### VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

##### - Lazkaoko Txirrindularitza Elkarteari.-

2023 urteko Lazkaoko jaietan, apirilaren 29an LXXX. Lazkaoko proba eta maiatzaren 6an XLVII. Lazkaomendiko proba antolatzeagatik, 7.716,03 €-ko dirulaguntza ematea.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 480.03.338.00 partidatik ordainduko da.

##### - Juan Barandiaran Mujikari.-

Zubierreka auzoan, ekainaren 24an, San Juan egunez auzokideek San Juan Txikiko ermitan antolatzen duten erromeriaren gastuei aurre egiteko, Juan Barandiaran Mujikari 635,11 €-ko diru laguntza ematea.

##### - Oin Arin Dantza Taldeari.-

2023 urteko ekainean, Valentziako taldearekin emanaldia, Dantzari Txiki eguna eta San Juan sua antolatzeagatik, 2.420 €-ko dirulaguntza ematea.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 480.01.334.00 partidatik ordainduko da.

##### - Lazkaoko Musika Bandari.-

Talde hau eta udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza aurreikusitako zen. Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 2.000 €, ordaintzea onartu da.

Diru laguntza 2023ko aurrekontuaren 481.07.334.00 partidatik ordainduko da.

## VII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hau onartu du:

- Euskara ikasten arl direnel.-

2022/2023 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Lau ikasle izan dira, bere espedienteetan dauden datuen arabera, eta guztira 498 € emango dira, bakoitzari 249 € dagozkiolarik.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2023ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

## VIII.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

- Lazkao Txiki Musika Eskolari.-

2023ko Udal aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzaren bigarren zatia, 35.000 €-koa, ematea.

## IX.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei 2023ko irekiera eta obregatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023rako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

<b>MERKATARIA</b>	<b>GUZTIRA</b>
Daniel Merino Benito (EKO GARBI)	500,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>500,00 €</b>

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.03.433.01 partidatik egingo da



X.- LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremua Batzordetik baserritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei hirugarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
Aitor Iztueta Barandiaran	500 €
Aitor Iztueta Barandiaran	240 €
Iker Sukia Mesas	45 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>785 €</b>

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO  
UDALA